**Sindikatuok deituriko Haurreskolak Partzuergoko grebak eta hezkuntza-zerbitzuak gizartearen babes zabala jaso du Jaurlaritzaren mututasunaren aurrean**

LAB, STEILAS eta ELA sindikatuok Haurreskolak Partzuergoko langileen greba dinamika arrakastatsua eta langile, familia eta eragileen atxikimenduak balioan jartzen ditugu. Aldiz, gehiegizko zerbitzu minimoak, plantilaren greba eskubidearen urraketa, greba desitxuratzeko hauen inguruko interpretazio interesatuak eta Eusko Jaurlaritzaren isiltasuna salatzen ditugu. Oztopo guztien gainetik, hiru egun hauetako %70eko jarraipenak indarra ematen digu gure helburuak bete arte mobilizatzen jarraitzeko.

Abenduan mobilizazio dinamika abian jarri genuenetik 8. greba eguna burutu eta gero, Eusko Jaurlaritzaren deiaren zain jarraitzen dugu. Bitartean, langileen lan-baldintzak okertu eta Haurreskolak Partzuergoa bera arriskuan jartzen dituzten aldebakarreko erabaki politikoak hartzen jarraitzen dute.

Gauzak horrela, Haurreskolak Partzuergoa 2003an sortu zenetik Hezkuntza Sailak, Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzorde desberdinek egindako kudeaketa eta alde sozialak egindako lana zalantzan jarri ostean eta bi hilabetez Hezkuntza Sailaren berririk gabe egon eta gero, LAB, STEILAS eta ELA sindikatuok mobilizazioekin jarraitzea baino ez zaigula geratzen azpimarratu nahi dugu.

Halaber, negoziazio kolektiboaren kontrako eraso zuzena eta alde sozialaren lana oztopatzeko ahalegina salatu nahi ditugu. Urteetan zehar Haurreskolak Partzuergoan lortutako hezkuntza kalitatearen defentsan egindako lanarekin eta langileak mobilizazioen bitartez lortutako lan baldintzen hobekuntzen defentsan jarraituko dugula argi utzi nahi dugu.

EAEko Hezkuntza Saileko sailburuari, Jokin Bildarratzi, haurreskolen etorkizunaren inguruan garbi hitz egin dezala eskatzen diogu. Non geratu da Eusko Legebiltzarrak pandemiaren ondorioz baldintza ekonomikoak okertu zaizkien familiei Haurreskolak Partzuergoaren kuoten hobariak gauzatzeko Eusko Jaurlaritzari egin zion eskaera? Eta, erabateko doakotasunerako urratsak?

Era berean, gogorarazi nahi dugu Haurreskolak Partzuergoak bizi duen gatazka non oinarritzen den eta mahai gainean ditugun aldarrikapenak zeintzuk diren:

- Haurreskolak Partzuergoaren doakotasuna eta integrazioa Hezkuntza Sailean.
- Dauden akordioak errespetatzea eta betetzea.
- Lan-hitzarmen berriaren negoziazioa abiatzea.
- Langileen behin-behinekotasun tasarekin bukatzea eta lanpostuak egonkortzea.
- Irakaskuntza publikoan Osakidetzak egiten duen Norbera Babesteko Ekipamenduen horniketan Haurreskolak Partzuergoa gehitzea.
- Aurrekontua handitzea.

Bada garaia 0 eta 3 urte bitarteko Haur Hezkuntzako lehenengo zikloari merezi duen aitortza emateko.

Eskerrak eman nahi dizkiegu mobilizazio dinamikarekin bat egin edota herrietan antolatu dituzten ekimenetan parte hartu duzuen langile guztioi, hezitzaile zein kudeaketa langile izan. Gatazkari babesa erakutsi eta laguntza eskaini diguten familiei ere, nola ez, gure eskerrik beroenak.

Zerbitzu publiko honen garapenerako borrokan jarraituko dugu, denon artean lortuko dugu!

Gora Haurreskolak Partzuergoko langileon borroka!

LAB, STEILAS eta ELA sindikatuak
2021eko otsailaren 24an

**Amplio apoyo social a la huelga convocada por los sindicatos en el Consorcio Haurreskolak y a su servicio educativo del, ante el mutismo del Gobierno**

Los sindicatos LAB, Steilas y ELA ponemos en valor la exitosa dinámica de huelga del personal del Consorcio Haurreskolak y las adhesiones de trabajadoras y trabajadores, familias y agentes educativos. En cambio, denunciamos los servicios mínimos abusivos, las interpretaciones interesadas sobre estos para distorsionar la huelga, la vulneración del derecho de huelga,y el silencio del Gobierno Vasco. Por encima de todas las trabas, un seguimiento de 70% de los tres días de huelga nos da fuerza para seguir movilizándonos hasta que se cumplan nuestros objetivos.

Tras la celebración de la octava jornada de huelga desde que en diciembre pusimos en marcha la dinámica de movilizaciones, seguimos esperando la llamada del Gobierno Vasco. Mientras tanto, sus dirigentes siguen tomando decisiones políticas unilaterales que empeoran las condiciones laborales de las trabajadoras y los trabajadores y ponen en peligro al propio Consorcio Haurreskolak.

Así las cosas, tras cuestionar la gestión realizada por el Departamento de Educación de la CAV, las diferentes Juntas Directivas del Consorcio Haurreskolak y el trabajo realizado por la parte social desde la creación del Consorcio Haurreskolak en 2003, y después de dos meses sin noticias del Departamento de Educación, los sindicatos LAB, STEILAS y ELA queremos subrayar que sólo nos queda continuar con las movilizaciones.

Asimismo, queremos denunciar el ataque directo a la negociación colectiva y el intento de obstaculizar la labor de la parte social. Queremos dejar claro que seguiremos impulsando la calidad educativa en el Consorcio Haurreskolak conseguida a lo largo de los años y defendiendo las mejoras de las condiciones laborales logradas por el personal a través de movilizaciones.

Pedimos al consejero de Educación, Jokin Bildarratz, que hable con claridad sobre el futuro de las Haurreskolak. ¿Dónde ha quedado la petición que hizo el Parlamento Vasco al Gobierno de Gasteiz para aplicar bonificaciones en las cuotas del Consorcio Haurreskolak a las familias a que han sufrido un empeoramiento de sus condiciones económicas a causa de la pandemia? ¿Y los pasos para la gratuidad total?

Asimismo, queremos recordar en qué se basa el conflicto que vive el Consorcio Haurreskolak y cuáles son las reivindicaciones que tenemos sobre la mesa:

- Gratuidad e integración del Consorcio Haurreskolak en el Departamento de Educación.
- Respeto y cumplimiento de los acuerdos existentes.
- Puesta en marcha de la negociación del nuevo convenio.
- Acabar con la tasa de temporalidad de las plantillas y estabilizar los puestos de trabajo.
- Incorporación del Consorcio Haurreskolak en la provisión de Equipamientos de Protección Individual que realiza Osakidetza en la enseñanza pública.
- Aumento del presupuesto.

Es hora de dar el reconocimiento que se merece al primer ciclo de Educación Infantil de 0 a 3 años. Agradecemos a todas las trabajadoras y trabajadores, educadores y educadoras, así como al personal de gestión, que se hayan sumado a la dinámica de movilización y/o que hayan participado en las iniciativas que han organizado en los pueblos. También nuestro más sincero agradecimiento a las familias que han mostrado su apoyo al conflicto y nos han ofrecido su apoyo.

¡Vamos a seguir luchando por el desarrollo de este servicio público, lo vamos a conseguir entre todas y todos! ¡Viva la lucha de las trabajadoras y trabajadores del Consorcio Haurreskolak!

Sindicatos LAB, Steilas y ELA
24 de febrero de 2021